


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco      Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK

2022-2023

**DISIDENTZIA SEXUALEN IRUDIKAPENAREN  
ANALISIA ESPAINIAKO TELEBISTAREN EDUKI  
JARRAITUENETAN (2003-2023)**

EGILEA: ANDONI GOIKOETXEA MARTINEZ

ZUZENDARIA: AINTZANE RINCON DIEZ

2023ko Irailaren 1a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Marko teorikoa	7
3. Testuinguru historikoa: disidentzia sexualei buruzko legedia Espainian	12
4. Iturrien analisia	20
a. <i>Aquí no hay quien viva</i>	21
b. <i>La que se avecina</i>	25
c. <i>Aída</i>	29
5. Ondorioak	34
6. Bibliografia	36

## SARRERA

Gaur egun gizarte saretu bezala ezagutzen dugun honetan informazio-fluxua eta jendeak duen informazio eskuragarritasuna inoiz baino handiagoa da. Gure gizartearen ezaugarri hau, besteak beste, Interneten popularizazioak ahalbidetu du eta euskarri berrien hedapenak eta eskuragarritasunak bizkortu du.

Lan hau garatzeko, gizarte saretuaren egungo informazio-fluxuak (teknologiek sostengatua) gizarte-aldaketan duen zeregina aztertu nahi dut. Horretarako, *mainstream* hedabideak fikziozko obren bidez errealitatea nola erreproduzitzen eta zabaltzen duten analizatuko dut. Izan ere, bitarteko horiek eta partekatzen duten informazioa gizartearen isla izateaz gain, gizarte-errealitatearen sortzaile ere badira. Hau da, hedabideek talde kolektibo baten praktika komunak erreproduzitzen dituzte: balioak, portaerak eta esanahi kulturalak. Komunikabideak, entretenimendua eta fikzioaren bitartez, esanahi sozialak eraikitzen eta transmititzen dituzten agente historikoak dira.

Hala ere, fikzioa ezin da errealitatea bera bezala hartu eta, hortaz, fikziozko narrazioak ezin dira errealitatea bailiran landu edo aztertu. Entrenimenduaren eta fikziozko istorioen interesa bestelakoa da: gizarte erreferenteak sortzeko, gizarte batek eredugarri eta gaitzesgarri kontsideratzen duena eraikitzeko eta identifikatzeko ahalmen paregabea dute -seguruena beste ezein diskurtsok edo iturrik baino gehiago, are gehiago gaur egun-. Hor dago nire interesa fikzioaren analisisan. Entrenimenduzko obrek errealitateari ematen dioten balio esanguratsua ulertzea da lan honen gakoa.

Zehazki, fikzioak eraikitzen laguntzen duen “egitate” edo “errealitateetako” bat, genero identitateak eta sexu orientazioak eta horiekiko iruditeriak dira. Eta hau da lan honek duen interesa: Espainiako fikzio arrakastatsuenetarikoen analisiaren bidez, jendartean orokortuak dauden ideiak lantzea. Horretarako, genero identitateak eta sexu-orientazioa nire interes analitikoaren erdigunean egonda, ezinbestekoa zait eremu hau landu duten ikerketak eta lan teorikoak lantzea. Foucault eta Butler izango dira lan honen oinarria. Teorialari horiek generoa konstruktua soziala dela baieztatzen dute. Alde batetik, Butlerren ustez, generoa ez da identitate finko bat, ezta ezaugarri biologiko bat ere, subjektuak behin eta berriz errepikatzen

dituen ekintza batzuk baizik. Bestela esanda, pertsonak beren ekintza eta portaeren bidez “egiten” dute beren generoa. Hau da, teorialari estatubatuarren arabera onartu edo adostu dugun antolatze-forma bat da. Honekin ez du esan nahi generoa/sexua iruditerian dagoen zerbait izatera mugatzen denik, izan ere, parte diskurtsibo garrantzitsua izan arren, ondorio material erabatekoak ditu. Eta Foucaultek, bestalde, sexualitatea eta genero-arauak denboran zehar aldatu diren eraikuntza historikoak eta kulturalak direla argudiatzen du. Bere ustez, gizarteak sexualitatea eta generoa ulertzeko eta arautzeko duen moduak bilakaera izan du historian zehar.

Bi egileek generoa gizarte-konstruktua dela eta genero-arauak eraikuntza historiko eta kulturalak direla ulertzen dutenari jarraituz, 2000. urtetik 2023. urtera audientzia handiena izan duten Espainiako telesailen analisiaren bidez normatibitate sexualetik aldentzen diren identitateen azterketa egingo dut. Normatibitate sexualari erreferentzia egiten diodanean, arau soziokultural eta historikoen multzotzat hartzen diren genero-arauez ari naiz. Arau horiek eguneroko portaerak eta sexualitatea gauzatzeko eta adierazteko modua zehazten dituzte. Adierazitako telesailak *Aquí no hay quien viva* (Antena3, 2003-2006) *Aída* (Telecinco, 2005-2015) eta *La que se avecina* (Telecinco, 2007-2022) dira.

Narrazio hauen analisia sortuak eta proiektatuak izan diren testuingururekin harremanean landu behar dira. Horregatik, halaberrez Espainiako LGTBIQ+ komunitatearen edo kolektiboen ibilbide historikoa egingo dut, horien gizarte-egoera azalduz eta haiei zuzenean eragiten dien legeen bilakaerari ere erreparatuz.

Bestalde, hautatu dudak komunikabidea, kasu honetan telebista, eta aztertuko diren telesailak modu justifikatua aukeratu dira. Alde batetik, serie popularrak dira, analisia aurkeztu egiten dudak bezala audientzia-markak hautsi dituztenak eta, beraz, Espainiako gizartean eragin handia izan dutenak. Lan honen protagonistak diren 3 telesailak, telebista kate pribatuetan emititzeaz gain, gaur egun hainbat *streaming* plataformetan aurkitu daitezke<sup>1</sup>: Netflix, HBO Max, Prime Video edota Mitele.

Telesailen iraupen osoa denboran zabala da eta, ondorioz, hainbat atal dituzte. *Aquí no hay quien viva* 6 denboraldi eta 91 atal ditu. Orotara 5.460 minutu. *Aída* 10 denboraldi eta 245 atal ditu. Orotara 15.925 minutu. Eta *La que se avecina* 15 denboraldi eta 194 atal ditu.

---

<sup>1</sup> Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat *streaming* plataformen audientzia da, espainiarren %81'8k baitute ordainpeko edukietarako sarbidea. Termino absolutuetan, 30'5 milioi espainiar ordainketa-plataformetan sartzen dira (Plataformas OTT en España, 2023).

Orotara 15.520 minutu. Nire lana egiteko, telesail osoak kontuan hartuta, analisirako proposenak diren atalak aukeratu ditut. Hau da, testuingurua eta lanaren gaia kontuan hartuta, disidentzia sexualen inguruko hausnarketa mediatikoa, historikoa eta gizartearena egiteko aberatsenak eta mamitsuak diren atalak landuko ditut. Testuinguru soziokulturala seriekoarekin erlazionatzea bilatuko da, errealitatearen eta fikzioaren arteko antzekotasun-maila ezagutzeko.

## MARKO TEORIKOA

Normatibitate aldentzen diren identitate sexualen lanketarako, gai honen inguruan aritu direnen lanak erabiliko ditut. Horregatik generoaren inguruko hausnarketa teorikoak izango dira lan honen iparrorratza.

Michel Foucaultek, filosofo, historialari eta gizarte-teorialari frantsesa, bere buruari galdetu zion ea gizakiak bere pentsamoldeak aldatu behar zituen, edo pentsaera horiek berez gizakiari zegozkion. Galdera horretan oinarrituta, egilea sexu-aniztasunari eta generoari buruzko bere ulermena zabaltzen hasi zen, arau bitar eta heteronormatiboei aurre egiteko helburuarekin. Beste filosofo batzuk ere, hala nola Judith Butler, Eve Kosofsky Sedgwick, Gayle Rubin eta Teresa de Lauretis, autore feministetan oinarritu ziren genero eta sexualitate kategoria zurrunik ezartzen zituzten arau sozial eta kulturalak zalantzan jartzeko, kategoria horiek ezegonkortzea eta desafiatzea bilatuz (González, 2008).

Generoaren eraikuntza aztertu duten filosofoek planteatzen dute, bai generoa eta baita sexualitatea ere naturalizatuta daudela. Hau da, gizakiaren sexu biologikoan oinarritutako eskema normatiboak gizabanakoaren portaera, izateko edota egoteko modua zehazten ditu. Sexu-dikotomia batean oinarrituta, naturala dena eta ez dena ordenatzen duen eskema da, diskurtso kultural batetik baliozkotuz. Gorputz sexuatu bakoitzari ezaugarri jakin batzuk esleitzen zaizkio; fisikoak, psikologikoak, estetikoak, jarduteko moduarekin (sexualak barne) zerikusia dutenak eta abar, eta kulturalki arau edo ezaugarri “natural” bihurtzen dira. Nolanahi ere, naturaren aurkakoaren nozioak balio-karga negatiboa du, eta sarritan bizio eta perbertsioekin lotzen da. Kontuan hartuko dudana hurrengo egileak, Judith Butlerrek, alegatzen du ekuazio koherente hori ez dela naturala edo jainkotiarra, baizik eta izaera sozialeko prozesuen ondorioz sortzen dela.

Genero ezberdintasunak, diferentzia sexualaren diskurtsoaren naturalizazioan oinarritzen dira eta planteamendu hau azaltzeko Judith Butler filosofo eta teorialariaren lanetara jo dut. Lan honetan, autore estatubatuarrek genero-performatibitateari buruz egiten duen teorizazioa hartuko dut oinarri bezala. Butlerren arabera, gure gizarteak gorputzen fisionomia sexuatuaren oinarritutako bi gorputz mota sailkatzen ditu -genitalei ematen zaie

sailkapenerako irizpide zalantza-ezinaren kategoria (naiz eta berarentzat hori ere eraikuntza bat den, edo konbentzio bat, edo adostasun orokortu bat); sailkapen hau gorputzen naturalizaziotik abiatzen da. Gorputz sexuatu horien arabera bi talde sortzen dira eta bakoitzari balore, jokabide, mugitzeko forma, iruditeria eta abar luze bat egokitu zaizkie. Abar luze horren barruan desio sexuala ere badago, noski. Butlerren ustez, egituraketa edota iruditeria kultural honen guztiaren naturalizazioa -ez ikustea- errepikapenaren ondorioa da. Aduaren esanetan, performatibitateak dakar “naturalizazioaren efektua”. Hau da, performatibitateak naturalizatu egiten du generoa, eta, aldi berean, naturalizatu egiten du performatibitate horri "dagokion" gorputzarekiko "koherentzia". Beste terminotan planteatuta, gorputz bat emakumezkoa edo gizonezkoa dela esaten dugu eta marka horien arabera ditugun espektatiben menpe arituko da, femeninoki edo maskulinoki -jokabide horiek, halaber, eragingo dutelarik emakumezko edo gizonezko izatearen legitimazioa. Beraz, gizabanakoa berak etengabeko ekitearen bitartez (“naturala” izan dadin betiere, bere sexuaren eta gorputzaren arteko koherentzia mantenduz), genero baten edo bestearen barruan “irakurgai” bihurtuko da. Arauak jarraitzeak egiten du indibidua kulturalki ulergarria eta irakurgarria izatea gainontzekoentzat eta bere buruarentzat (Moreno, 2017). Horrela ez bada, arrarotzat hartuko du arau horietan murgildurik bizi den gizarteak. Ez gizarteak bakarrik, subjektu horrek ere, jendartearen parte den neurrian, bere burua ere arrarotzat ikusiko du edo ikusi dezake. Lan honetan arauaren barruan sartzen ez diren subjektu horiek aztertuko ditugu, haien ekintzak ez baitira mugatzen sexu-dikotomiak ezarritako arau-ekintzetara. Alegia, gizartearen inposizioen aurka egiten dute, kulturalki onartutakoa zalantzan jarriz eta naturalizazioaren testuinguruaren kontra eginez.

Esan bezala, azaldutako logika honen barruan, ekuazio koherente horri egokitzen ez zaiona “bestelakotasunaren” eremuan kokatuko litzateke. Hala ere, azpimarratu behar da naturala edo arauemailea denaren eskema aldatuz joan dela denborarekin. Hau da, generoaren performatibitateak, kontzeptuak eta ikuskerak ere bilakaera izan dutela historian zehar. Beraz, generoaren ekuazio-koherentea ez da eskema estatiko, mugiezin eta unibertsala. Alegia, denborarekin maskulinoa eta femeninoa izateko moduak pluralizatu egin dira. Hau da, naiz eta gure egunetara arte ustezko koherentzia eta era estatiko batean iritsi zaizkigulako fikzioarekin agertzen zaizkigun, generoaren diskurtsoak aldatuz joan dira eta gorputz bakoitzari onartzen zaizkion portaerak baita ere (bestelakotasunaren eremuan kokatuak izan gabe). Zentzu honetan, Nerea Arestik adierazten digun bezala, “historiak erakusten du arlo honetan, beste askotan bezala, ezinbesteko tresna epistemologikoa dela sexuen izaera aldakor



eta kontingentea agerian uzteko, eta bereziki baliagarria gorputzak esentzia aldaezinen eramaile gisa ulertzeko modua alde batera uzteko".<sup>2</sup>

Gure gizarteetan naturalizazio horren eragile edo agente historiko funtsezko bat hedabideak dira. Hedabideek genero identitateen eraikuntzan duten eragiteko ahalmena ez da berria, baina seguruenik dimentsio berri bat hartu dute XXI. Mendean, zeinean gizartearen mediatizazio maila biderkatu egin den: espazio publikoaren pribatizazioarekin, jendarteak munduarekin duen harremana geroz eta mediatizatuagoa dago. Are gehiago, harreman pertsonalak eta sozializazioa neurri oso handian euskarri berrien bidezkoa da. Hain zuzen ere, *tablet* eta mugikorra bezalako gailu elektrikoek berehalako komunikazioa ahalbidetzen dute *online* mezularitzaren bidez; Internetek eta sare sozialek aldatu egin dute pertsonak konektatzeko eta harremanetan egoteko modua; edo baita ligatzeko aplikazioek ere, erabiltzaileari bere interesen antzekoak dituzten pertsonak aurkitzea errazten diote. Gaur egungo gizarte mediatikoan, hedabideak etengabe ari dira jendartea interpelatzen eta, era horretara, identitateak ere eraikitzen, kontsolidatzen baina baita haien transformazioa eragiten.

Interkonektatuta dagoen gizarte batean informazioa etengabeko zirkulazioan dago eta nonahi dago. Berez, gaur egungo gizarte ezaugarritzen duten informazioaren karakteristika hauek ez dira berriak. Baina bai azeleratu egin dira XX. Mendetik (bereziki 1945etik) presente dauden hainbat bereizkunde.

XX. Mendearen bukaeran mende beraren hasieratik hasita zegoen prozesu baten azelerazioa ematen da, zehazki, teknologia berrien eta iraultza digitalaz ari gara. XX. Mendearen hasierako gizarte industrialean, lana eta kapitala funtsezko baliabideak ziren, gizarte postindustrialean baliabide horiek okupatzen zuten toki protagonista informatika, telekomunikazioak eta ezagutza zientifikoak hartu zuten. Hau da, garai industrialeko sistemen ordez gizartearen antolaketa berria zehaztu zuten beste sistema batzuk ezarri ziren. Funtsezko tresna ez da merkatua, informazioa baizik (Castells, 2001). Orduan hartu zuen gizarte-postindustrialak "informazioaren gizartea" izena; bi izendapenak sinonimo gisa erabiltzen hasi ziren (Fernández, 2023). Gizarte berri horren ezaugarria zen informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT) gero eta garrantzi handiagoa zutela. Teknologia berri

---

<sup>2</sup> Aresti, N. (2010). *Masculinidades en tela de juicio*. Hombres y género en el primer tercio del siglo XX. Cátedra, Universidad de Valencia. P. 13. Norberak itzulia.

horiei esker, handitu egin zen informazioaren bolumena eta banaketaren abiadura, bai pertsonen eguneroko bizitzan, bai gizartearen antolaketan, oro har. Gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren hainbat alderditan eragin nabarmena izan zuten (Díaz, 2013). Hala ere, komunikazioaren arloa da, zalantzarik gabe, IKTei esker bilakaera handiena izan zuen industria-sektorea (Tubella eta Alberich, 2012). Komunikabideek aurrerapen nabarmenak izan zituzten informazioaren eta edukien ekoizpenean eta banaketan. Era berean, pertsonak komunikatzeko, informazioa kontsumitzeko eta gizartean parte hartzeko zuten moduak ere bilakaera izan zuen.

Gure interesekoa den lan honen edukiak transmititu izan direneko euskarriari ere, telebistari alegia, teknologia berrien garapenak eragin egin zion. 80eko hamarkadaren bukaeran, kable bidezko telebistak teknologien garapena jasan zuen, digitalizazioari eta zuntz optikoari esker. Gainera, satellite bidezko igorpenak transmisioen espektroa hedatzen ahalbidetzeaz gain, komunikazioak oro har eta telebista bereziki deserregularizatzen hasi ziren. Horrek bi aldaketa handi ekarri zizkion telebistari: batetik, sare berriak sortu ziren; eta bestetik, audientzia masiboa desagertzen hasi zen, eskura zeuden aukerak eta kanalak biderkatu zirelako. Ikusleen zatiketaren aurrean, kateek mota guztietako formatuak probatu zituzten ikus-entzuleak bereganatzeko, eta gainera, fikzio nazionalaren aldeko apustua egin zen (Llamas, Gelado, de la Calle eta Pérez, 2021). Telebista nabarmendu zen bere ahalmen limurtzaileagatik, errealitatearen irudikapen batekin zentzumenak estimulatzeko zuen gaitasunagatik eta komunikatzeko zuen erraztasunagatik (Castells, 1996). Gainera, berrikuntza ere faktore erabakigarria izango litzateke. Eta, horrekin batera, etxekotze prozesuarekin bat egin zuela, etxea leku erosoagoa bihurtzearekin. Etxea kaleetan bizi zen krispazioaren alternatiba bihurtu zen: krisi ekonomikoa, greba orokorrak, ustelkeria politikoaren lehen kasuak (Llamas, Gelado, de la Calle eta Pérez, 2021). Espainiako trantsizioko lehen urteetan, Alderdi Sozialistaren legegintzaldian, defizita handitu zen, milioi erdi lanpostu baino gehiago desagertu ziren eta soldatak jaitsi ziren (Arce, 2008). Felipe Gonzalezen gobernuak eragindako desberdintasunek izan ziren 1988ko langileen mobilizazioen eta greba orokorren eragileak. Gainera, 1990ean PSOEk sinesgarritasuna galdu zuen lehen ustelkeria kasuekin, alderdiari zuzenean eragiten ziotelako. Biztanleriak gobernu sozialistarekiko desafekziorik handiena izan zuen unea eman zen, eta “zentsura moraleko eta mesfidantzako unea izan zen” (Arce, 2008).

Beraz, etxeko erosotasuna eta telebista “gure gizarteen kultur epizentroa” ziren (Castells, 1996). Horrek gizartean garrantzia eta eragina duen komunikazio-tresna bihurtzen ditu TB-a eta haren mezuak. Ikusleak telebistako edukiak kontsumitzen ditu etxeko eremu pribatuan, printzipioz toki goxoa edo lasaia dena. Intimitate-eremu horretatik, baloreak, aurreiritziak, sinesmenak edota ametsak zabaltzen ditu. Elementu horiek guztiak gizarte beraren parte dira, ez dira arrotzak ikuslearentzako. Entreenimenduzko edukiei dagokionez, hauek beti izaten dute konexio handia garai bateko klima diskurtsiboarekin, -inkluso zientzia fikziozko edukiak, hauek are eta gehiago, oso eduki filosofikoetan oinarrituta egon ohi baitira-. Normalean egunerokotasun handiko eduki, aurreiritzi eta ekosistema diskurtisboetara gerturaten dute ikuslea. Horregatik dira hain interesgarriak, genero ikuspegi batetik, gizarte batek gai hauen inguruan dituen iruditeriak aztertzeke.

Lehenago aipatu dugunez, genero identitateen naturalizazioa errepikapenean oinarritzen da. Eta errepikapen horien parte-hartzaile handi bat entreenimenduzko edukiak dira. Hau da, gure aztergaia komunikabideek ikusleen errealitatearen eraikuntzan duten zereginaren adibide argia da. Entreenimendua edo fikziozko dimentsioa izan arren, “telebistako irudiak psikologikoki eragiteko duen gaitasuna hain da handia, ezen haren historia, pertsonaiak, erreproduzitzen dituen portaerak edo garraiatzen dituen modak gizarte osoak emulatzen baititu azkenean, eta, horrela, errealitate bihurtzen” (Martínez, 2006). Horregatik, telebista errealitatearen ekoizletzat har daiteke.

## **TESTUINGURU HISTORIKOA: DISIDENTZIA SEXUALEI BURUZKO LEGEDIA ESPAINIAN (1920-gaur arte)**

Gaur egun erabiltzen dugun LGBTBIQ+ terminoa berria da. Izendapen edo letra multzo hori, genero eta sexualitateari lotutako identitateen zabaltzearen ondorioz ikusarazi diren esperientzia eta sentimendu ezberdinak barneratzeko borondatek etorri da. Are gehiago, normatibitate sexuala aldatuz joan den bezala, bazterrean geratu izan diren portaerak edota desirak ere aldatuz joan dira. Hala ere, atal honetan iraganera begirada bat egingo dut, aldi garaikide ezberdinetako bestelakotasunei begiratuz. Gaur egunean dugun egoera ulertzeko eta, ondorioz, telesailen edukiak ulertzeko interesgarrienak eta baliogarrienak diren etapetara begiratuko dut.

XX. Mendearen hasieran, hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan, Espainian sexu-askapen edo sexu-iraultza deiturikoa gertatu zen, Bigarren Errepublikan (1931-1939) bere distira handieneko momentura iritsi zena. Iraultza hori sexu-ohituren erreforma sakonera bideratutako diskurtso-elementuek eta ekimen politikoek osatu zuten. Mugimendu iraultzailea eten egin zen Gerra Zibilaren ondoren, diktadura frankistaren eta nazional-katolizismoaren ondorioz. Aldi horretan, askatasun politikoak murrizteaz gain, “moral” bat ere ezarri zen, Espainiako herritarren sexualitatearen gaineko zapalkuntza eta errepresio nabarmena gauzatu zuena (Huertas eta Novella, 2013).

Genero ordena tradizional bat ezarri zen, legez babestua, hari izaera nazionala eta katolikoa egotzi zitzaion modu absolutuan. Era horretara, bestelakotasun oro isilean bizitzera mugatu behar izan zen. Oinarri zientifikoak baina baita, eta bereziki, espiritualak (nazional-katolikoak) konbinatu egin ziren jendartearen Bigarren Errepublikak ustez traizionatu zuen genero ordena berrezartzeko; guzti hori legeak blindatua geratuko zelarik. Erregimen frankistak erreproduzitutako narratibak nortasunaren eta sexualitatearen arau-esparrua definitzen zuen zorrozki; eta hori ez betetzeak beste gizabanakoek pertsona desbideratutzat, gaiztotzat eta sen natural eta biologikoen aurkakotzat hartzea zekarren. Hau da, nazional-katolizismoak sexualitatearen eta identitate sexualen nazionalizazioa burutu zuen, desbiatua izatea ez zen bakarrik gaixo egotea baizik eta aberriaren etsaia edo traidorea izatea.

Diktaturak homosexualitatea jazartzeko Bigarren Errepublikako lege bati jarraikotasuna eman zion, 1954ko Alfer eta Gaizkileen Legeari alegia. Lege horrek berak gaixo mentalaren arriskugarritasun potentzialaren ideia deuseztatu nahi zuen<sup>3</sup>. Adierazitako araua oinarri, behin baino gehiagotan egin zitzaizkion aldaketak erregimen frankistak arriskutsutzat hartzen zituen profil galbidetsu berriak gehitzearen ondorioz. Homosexualak 1954an gizarte-arriskutsuen kategorian sartu zituzten, gaizkile eta proxenetekin batera; horrek ez du esan nahi homosexualak lehenago jazarriak izan ez zirenik, bai erregimen frankistan, bai Bigarren Errepublikan. Era berean, pertsona transexualak ere errepresioa eta jazarpena jasan zituzten. Hau da, legean agertu ez arren, erreprodukzioa zuzenduta ez zeuden sexu-jokabide edo genero-identitate oro moralaren eta aberriaren aurkakotzat hartu ziren, eta, beraz, jazarriak ziren (Campos, 2016). Oro har, homosexual hitzak LGTB kolektibo osoari egiten zion erreferentzia. Komunitateko kideak homosexualtzat edo “desbideratutzat” jotzen ziren soilik, eta ez zen identitateen eta sexualitateen aniztasuna onartzen. Gizartearen pertzepzioak “homosexualitatearen muturreko adierazpen” gisa definitzen zituen *trabestiak*<sup>4</sup>. Gizon afeminatuak ziren, feminitatearen estereotipoak bereganatu nahi zituztenak. Beste era batera esanda, emakume gisa jantzen eta feminitatearekin lotutako rola eta ezaugarriak imitatzen gozaten zuten gizonak ziren (Guasch eta Mas Grau, 2014). Bai homosexualitatea, bai *trabestiak*, arriskutsuak ziren osasun publikoarentzat, eta, horregatik, desagertu egin behar zuten. Homofobia eta transfobia handiko une historikoa izan zen, homosexualitatea zigortzen zuten lege espezifikoekin (Guasch eta Mas Grau, 2014).

1970. Urteko abuztuaren 4ean Gizarte Arriskugarritasunaren Legea (LPRS) onartu zen, Alfer eta Gaizkileen Legea ordezkatu zuena. Besteak beste harreman homosexualak (LGBTB komunitatea oro har) zigortu egiten zituen legea izan zen (Villena, 2020). Legeriak arriskutsutzat jotzen ziren pertsonak “sozialki errehabilitatu” nahi zituen. LPRS-ren bigarren artikuluan, honako subjektu hauek arriskutsutzat hartzen zituen: alde batetik, “homosexualitate ekintzak gauzatzen dituztenak”; eta, bestetik, “prostituzioan aritu ohi direnak” (EAO, 16/1970). Pertsona horiek “berriro hezten” zituzten, eta leku jakin batera bidaltzen zituzten bizitzera, han zelatatzen baitzituzten. Gizon homosexualen kasuan, Huelvako espetxera eta Badajozeko espetxera bidaltzen zituzten. Gizon horiek espetxe desberdinetara bidaltzen zituzten bakoitzak sexu-ekintzan zuen rola kontuan hartuta. Hau da,

<sup>3</sup> Arriskuaren ideia horrek eztabaida luzeak ekarri zituen 1920ko eta 1930eko hamarkadetako psikiatren artean (Campos, 2016).

<sup>4</sup> Erregimen frankistak iraun zuen bitartean horrela deitzen zitzaizkien trans pertsonen. *Trabesti* kategoriak sailkapen-arazo bat sortu zuen, generoaren kultura-irudikapenaren sistema estandarrak urratu zituen figura bat zelako (Guasch eta Mas Grau, 2014).

rol aktiboa zutenak Huelva bidaltzen zituzten, eta sexu-egintzan rol pasiboa betetzen zutenak Badajozera (Soares, 2021). LGTB komunitatea “diktadurak eremu sozialetik desagerrarazi nahi zituen izaki isilen eta existitzen ez zirenen” multzo bihurtu zen (García, 2019).

Arau nazional-katolikotik aldentzen ziren portaerak zigortuak ziren. Hori bai, zigorrak ekiditeko isilpean eta klandestinitatean bizi izaten ziren horrelako sentimenduak, biziraupen edota protekzio estrategiak bultzatuta<sup>5</sup>. Egoera horren aurrean, 70eko hamarkadan, lehen gay talde aktibista sortu zen. 1971tik aurrera, diktaduraren urteetan, Francesc Francino eta Armand de Fluviàren eskutik sortutako *Movimiento Español de Liberación Homosexual* (MELH) izeneko talde klandestino LGTB komunitatearen eskubideen defentsarako Espainiako lehen erakundea izan zen. Hala ere, bere jarduera nabarmen ahuldu zen poliziaren presioaren ondorioz, eta bere bilerak eta jarduerak 1973. urtean desagertzen hasi ziren. Taldea 1975ean, diktadorea hil eta gero, berriro antolatu zen *Front d'Alliberament Gai de Catalunya* (FAGC) izenarekin.

Espainiako trantsizioa hasita, bestelako kolektiboen antolaketa politiko eta aldarrikapen politikoekin gertatu bezala, homosexual eta lesbianak ere kolektiboki bildu eta beren eskubideak aldarrikatzen hasi ziren forma publikoan. Zehazki, homosexualen lehen manifestazioa 1977ko ekainaren 26an izan zen, Bartzelonako Rambla etorbidean FAGCek antolatua. Elkarretaratzean bost mila pertsona inguru bildu ziren eta poliziak manifestazioa bukarazi zuen (Villena, 2020). Hiru urte geroago, 1980an homosexual eta lesbianak biltzen zituzten elkarteak legezatu ziren, FAGCek Adolfo Suarezren Gobernuari jarritako administrazio-errekurtsoari esker. *Front d'Alliberament Gai de Catalunya* izan zen aitorten ofiziala jaso zuen lehen erakundea.

80ko hamarkadaren hasieran, LGTB erakundeak legezkatuta zeudenean, kolektiboaren barruan bi korrante sortu ziren, 1981ean Espainiara iritsi zen HIESaren krisiaren ondorioz. Krisi honen eraginez, alde batetik, diskurtso iraultzaile baten aldeko joerak sortu ziren, sexu-askapenaren garrantzia azpimarratzen zutenak eta erakunde publikoekiko lankidetzatza saihesten zutenak. Bestalde, integrazionismoaren aldeko korrantea agertu zen. Azken talde erreformista horrek erakundeekin kolaboratzearen alde egoteaz gain, identitate homosexuala

---

<sup>5</sup> Gema Perez-Sanchez-ek bere *El franquismo, ¿Un régimen homosexual?* lanean, frankismoak homosexualen eta LGTB komunitatearen gainean izan zuen kontrol zorrotza azaltzen du, kolektiboa modu klandestinoan jardutera eramane zuena: “mugimendu homosexual eta feministak lurpean jardutera behartuta zeuden, erregimenaren aurkako ekintzaileek jasan zuten jazarpenaren ondorioz” (Perez-Sanchez, 2004).

“normaltasuna”-ren barruan kokatzea bilatzen zuen. Erreformistek birusaren transmisioa konpontzea izan zuten helburu, gaixotasunari buruzko informazioa partekatuz eta kolektiboaren barruan erantzukizun indibidualaren berri emanez. Talde iraultzaileek, berriz, homosexualitatea eta gaixotasuna zuzenean lotzen zituen estigmatizazioari aurre egin nahi zioten (Díaz, 2021).

Estigmak, sexu-hezkuntza inklusiborik ezak, diskriminazioak eta osasun-zerbitzu egokiak ez izateak eragin handia izan zuten HIESaren prebalentzian LGTBIQ+ komunitatean. Laurogeiko hamarkadaren bukaeran, Espainiak zazpi mila GIB kasu inguru zituen. Kasu tasarik altuena zuen Europako hirugarren herrialdea zen. Alegia, hamarkada berean, Europan kasu gehien izan zituen bigarren herrialdea izan zen (De Miguel, 1991). Une hartan kolektiboa nazioartean bizi zuen osasun-krisia kontuan hartuta, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea despatologizatu zuen, 1990ean. Gertaera horrek nabarmen lagundu zion homosexualitatearen desestigmatizazioari, kontuan izanda alde batetik, komunitateak bizitzen ari zen osasun egoera larria, eta ordura arte, izaera sexual hori nahasmendu mentaltzat hartzen zela OMEren Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean. Jazoera mugarririk batez ari gara, mundu mailan homosexualitatea normalizatzeko prozesua nolabait abiarazi zuena. Kasu honetan, diskurtso medikoa bera izan zen homosexualitatea sozialki legitimatzen hasi zena.

Transexualitateari dagokionez ere, lehen aipatu bezala, erregimen frankistan zein trantsizioko lehen urteetan (1970-1982), pertsona transexualak (*trabestiak* garai hartan) homosexualizat jotzen ziren, emakume arrokekin jantzitako gizon afeminatutzat (Guasch eta Mas Grau, 2014). Transexualentzat, aldi hori klandestinitateak eta isiltasunak ezaugarritzen dute, legezko errepresioaren ondorioz. Hain zuzen ere, 1970ean, Gizarte Arriskugarritasunari buruzko Legearen aldaketarekin (EAO, 16/1970), zeinak, besteak beste, “homosexualitate ekintzak” egiten zituzten pertsonak zigortzera kondenatzen baitzituen, termino berri bat sortu zen, sarritan *trabestiei* egotziko zaiena: “kaltegarri sozial arriskutsuak”. Aurrerago, demokraziarako trantsizioan, *trabesti* hitza emakume transgeneroak izendatzeko erabiltzen zen bitartean, *trabesti operatuaren* kontzeptua azaleratu zen, sexua berresleitzeko kirurgia egin zuten emakume transexual haiek barne hartzen zituena. Azpimarratu behar da termino horiek ez zirela trans pertsonen nortasun propioa ematen, homosexualizat hartzen baitziren oraindik ere (Guasch eta Mas Grau, 2014). 1981ean, berresleipen genitaleko kirurgia

despatologizatu zen. Ordura arte, *operatutako trabestiak* atzerrira<sup>6</sup> joaten ziren kirurgia genitala egitera, edo ezkutuan egiten zuten, legeak desafiatzen zituzten mediku espainiarren bidez.

1982ko urriaren 28an, Espainiako Langileen Alderdi Sozialistak (PSOE) irabazi zituen hauteskunde orokorrak, eta horrek heldutasun demokratikoa eta sexu-aniztasunaren tolerantzia areagotzea ekarriko zuen. Hala ere, hamarkada batez eta gehiagoz, transexualen bilakaera soziala eta legegilea bere horretan mantendu zen, aldaketarik eta erreformarik egin gabe. Berez, 1998. urtetik aurrera garai miresgarritzat jotzen da Espainiako LGTB komunitatearen panorama legal eta aktibismoarenari dagokionez.

Garai miresgarri horren lehen zantzua izan zen Izquierda Unidak (IU) 1999an proposatu zuenean transexualentzako tratamendua Gizarte Segurantzaren osasun-zerbitzuetan sartzea. Carlos III.a Osasun Institutuak txosten tekniko bat egin eta gero ondorioztatu zuen Estatuak tratamendu integrala eman beharko lukeela Osasun Sistema Nazionalaren barruan. Urte berean, Alderdi Sozialistak (PSOE) antzeko proposamen parlamentarioa aurkeztu zuen. Proposamen horri esker, sexu-aldaketako prozesu kirurgikoa egin zuten gizabanakoek erregistro zibilean agertzen zen sexu-identifikazio aldaketa eskatu zezaketen, baina izena aldatzeko bi urteko tratamendu medikoa beharrezkoa zen. Beste aldetik, ezkontza eta guraso izateko eskubideak ez zitzaizkien onartu. Proposamen horrek nolabaiteko babesa jaso zuen LGTBQ+ talde batzuen aldetik, baina talde erradikalenek kritikatu egin zuten, batez ere, transexualentzako eskubide esanguratsurik ez ziurtatzeagatik (Mendez, 2009).

Handik urte gutxira, Espainian, etengabeko aldarrikapenak zirela eta komunitatearen elkarrean eskutik, hainbat eskari sortu ziren LGTBQ+ gizarte-taldearen eskubide zibilen inguruan. Bereziki, sexu bereko pertsonen arteko berdintasunezko ezkontza aldarrikatzen zen<sup>7</sup>. 2005ean, 13/2005 Legearen bidez, gay eta lesbianen elkartzeko zibilak legeztatu ziren (Martínez, 2018). Berdintasunezko Ezkontzari buruzko Legearekin edo Homosexualen arteko Ezkontzari buruzko Legearekin, Espainia munduko hirugarren herrialdea bihurtu zen berdintasunezko ezkontza legeztatzen, Herbehereen eta Belgikaren ondoren. Gainera, lege honek sexu bereko bikoteei bikote heterosexualek dituzten legezko eskubide eta erantzukizun

---

<sup>6</sup> Sexu-berresleipeneko kirurgia egin nahi zuten *trabestiak* Marokoko Casablanca hirira zihoazen gehienbat (Guasch eta Mas Grau, 2014).

<sup>7</sup> *Federación Estatal de Gais y Lesbianas* (FEGGL) taldea izan zen sexu bereko pertsonen arteko berdintasunezko ezkontza aldarrikatzen hasi zen lehen erakunde aktibistetako bat.



berberak ematen zizkien, seme-alabatasun, adopzio, herentzia, gizarte segurantza eta ezkontzarekin lotutako beste alderdi batzuk barne.

Aipatutako 13/2005 Legea, gay eta lesbianen arteko batasun zibila onartzen zuena, indarrean sartu ondoren transexual eskubideen aldeko aldarrikapenak hasi ziren indar handiagoa hartzen kolektiboaren elkarteen barruan. Gainera, urte bereko uztailak 2 egunean ematen den Gay Harrotasunaren Martxan, lelo nagusia pertsona transexualei zuzenduta zegoen: “Aurrera goaz, eta orain transexualak” (Mendez, 2009). Orduan hasi zen Genero Identitaterako Eskubideari buruzko Legea aldarrikatzen. Eskaeren artean osasun publikoaren bidez sexua aldatzeko prozesu kirurgiko bat egiteko aukera zegoen.

Hala ere, kolektiboaren erakundeen barruan, transexualen eskubideei buruzko jarrera ez zen guztiz aho-batezkoa. PSOEk homosexualen arteko ezkontzak legeztatu zituen kolektiboaren presioari eta aktibismoari esker, baina transexualek ez zuten oraindik lehentasunik esparru politikoan. 2006an, Carla Antonelli buru zela, aktibista talde batek gose-greba bat antolatu zuen, komunikabide nazionaletan babes eta ikusgarritasun handia lortuz (Mendez, 2009). Urte horretako ekainaren 2an, Ministroen Kontseiluak onartu egin zuen pertsonen sexuari buruzko erregistroaren zuzenketa erregularizatzeko lege sozialistaren proposamena. Prozesu parlamentarioan, Senatuak aho-batez onartu zuen proposamena, eta Parlamentuan, berriz, Alderdi Popularrak eta *Unio Democràtica de Catalunya* atzera bota zuten. Hala ere, Parlamentuaren gehiengoak 176 botorekin babestu zuen (Mendez, 2009). Transexualak gizarteratzeko prozesuan aurrerapauso handia zen. 2007ko martxoaren 15ean onartu zen gizabanako transexualen sexuari buruzko Erregistro Zuzenketa arautzen zuen Legea (EAO, 3/2007). Ordura arte, erregistro-zuzenketa prozesu judizial baten bidez egin behar zen, eta orain, berriz, administrazio-izapide baten bidez. Legeak berekin ekarri zuen dokumentu ofizialetan izenaren eta sexuaren aldaketa aitortzea, prozedura judizialik edo kirurgikorik eskatu gabe. Horretarako, genero-disforiaren diagnostiko bat aurkeztu behar zen, bi urteko tratamendu medikoa (terapia hormonalaz haraindiko alderdiak hartzen dituen) eta 18 urtetik gorakoa izan behar zuen, nazionalitate espainiarrarekin. Gainera, pertsona transexualak ezkondu egin litezke, baina sexu bereko pertsonen arteko ezkontzara joz (Mendez, 2009).

Espainiako transexualitateari, homosexualitateari, lesbianismoari eta bestelako disidentzia sexualei eragiten dion azken lege espezifikoa 2023. urtekoa da. Espainian, juridikoki, transexualitatea patologizazioaren bidez baino ez da aitortu duela hilabete batzuk

arte. Kondizio hori genero-disforia gisa definitzen zen orain arte. Lehenik eta behin, filia gisa definitu zen, “ia orientazio sexualaren paraleloan” (Martínez, 2017), eta, ondoren, ondoeza psikologiko gisa. Ondoeza horren sendabidea sexu-berresleipena zen, prozesu hormonal baten edo genitalen berresleipeneko kirurgia baten bidezkoa. Azken lege espezifikoko horren aurretik, transexualitatearen patologizazioa “marko biomediko”-arengatik sostengatua zen (Martínez, 2017), psikiatriak babestua eta transexualek erreproduzitu.

## Irudia 1



FELGTB+ elkartearen pankarta, LGTBIQ+ harrotasunaren manifestazioan trans egoera *despatologizatzea* eskatzen duena, Madrilgo Kale Nagusian, 2010. urtean.

Iturria: [felgtbi.org](http://felgtbi.org)

Mundu mailan, Osasunaren Mundu Erakundeak 2018an utzi zion transexualitatea gaixotasuntzat hartzeari. OME-ren irizpide hori 2023ean barneratu da Espainian. Otsailean sartu zen indarrean transexualen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legea. Otsailaren 16an, Diputatuen Kongresuak behin betiko onartu zuen despatologizazioa oinarri duen trans pertsonen genero-autodeterminazioaren araua. Korte Orokorren Aldizkarian bertan idatzita dagoenez, 4/2023 Legearen helburua da “lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak garatzea eta bermatzea, diskriminazio-egoerak desagerraraziz, Espainian sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero-adierazpena, ezaugarri sexualak eta familia-aniztasuna askatasun osoz bizi ahal

izateko” (EAO, 4/2023). Lege honek LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzen ditu, eta “beren herritartasun fisikoa erabat gauzatzea eragozten dieten oztopoak kentzen ditu” (4/2023 Legea). Kolektiboak hainbat hamarkadatan eskatu dituen aldarrikapenei erantzuten die lege honek.

Aipatzekoa da 4/2023 Legeak sortu dituela eztabaida ezberdinak feminismoaren baitan. Korrante klasiko baten eta postmoderno baten arteko gatazka eragin du. Korrante klasikoaren edo ortodoxoaren arabera, sexu-dikotomian oinarrituta, “emakumez eta gizonez osatutako gizarte bat eraiki da, non bigarrenak lehenengoak menderatzen dituzten” (Rodríguez, 2022). Korrante horrek izan da Trans Lege berria kritikatu duena. Bestalde, feminismo postmodernoa edo *queer*-ra dugu, generoa jolasteko erabil daitekeen edo borondatez irauli daitekeen konstruktua bat dela pentsatzen duena. Adar horrek feminismo erradikal trans-baztertzailerik edo TERF deitzen dio aurreko korronteari (Rodríguez, 2022).

Feminismo klasikoak uste du Trans Legeak emakumeak “ezabatzen” dituela eta beren “sexu-biologikoaren arabera jasaten duten diskriminazioa lausotzen duela” (Martín, 2022). Feminismoaren adar horren kritika honako honetan oinarritzen zen: 4/2023 Legearen bidez, gizonak bere burua erraz defini zitezkeen emakume gisa, genero-indarkeriaren aurkako legediaren aplikazioa saihesteko (Rodríguez, 2022). Hala ere, egia esan, legeak berak neurriak jasotzen ditu genero-indarkeriaren aurkako legediari kalte ez egiteko; izan ere, indarkeria-ekintza bat egin duen pertsona epaituta izango da, betiere delitua egiteko orduan identifikatuta sentitzen zen generoarekin.

Azaldutako legedia guzti hauek jendartean eman den ibilbide luze batekin eskuz- esku joan da. Hedabideek kolektibo hauen inguruan eman duten irudiari gerturatzea interesgarria da, baita entretenimenduak ematen duen informazioari esker gizartean kolektibo hauez sortutako imajinarioa zein den argitzea. Garrantzitsua da disidentzien egoera soziokulturala eta legala ezagutzea, garaiko gizarte-iruditeria ezagutzeko eta serieetan disidentzia hauen irudikatutako errealitatearekin alderatzeko.

## ITURRIEN ANALISIA

Lan honetan Espainiako telebista kate pribatuetako fikziozko eduki ezberdinetara gerturatuko naiz. Komunikabideek orokorrean eta bereziki fikziozko edukiek jendartean dauden irudikapen eta baloreak jasotzeaz aparte eta hauek erreproduzitu eta naturalizatzeaz gainera, horiek eraikitze, eta baita kontsolidatu edota eraldatzeko ahalmena dute. Beste era batera esanda, telebista iritzi publikoa definitzeko, edo definitzen laguntzeko, gailu modernoa izan da urteetan zehar mendebaldeko gizarteetan orokorrean. Zehazki, 2003tik 2022ra Espainian telebista ikusi zuten pertsonen ehunekoaren bilakaera honako hau izan da: (Orus, 2023): 2003an, Espainiako biztanleriaren % 90'7 izan zen telebista-audientzia. Joera hori murriztuz joan da gaur egunera arte. 2022an, herrialdeko biztanleen % 79'3k telebista ikusi zuen. Nahiz eta erregistratutako barneratze-tasaren beherakada nabarmena izan aurreko urteekin alderatuta, ukazina da, halaber, Espainiako biztanleriaren ia % 80k telebistako edukiak kontsumitzen jarraitzen duela. Oro har, azken bi hamarkadetako sartze-tasa ez da inoiz %79tik jaitsi, eta, beraz, telebista kontsumo handiko komunikabidetzat har daiteke. Aipatzekoa da, naiz eta gizarte saretuaren testuinguruan bestelako euskarriak telebistari kompetentzia erraldoia egiten dioten, TB-k jarraitzen duela izaten hedabide protagonista gure bizitzetan; horren adierazlea da aztertuko ditudan 3 telesailen datuak.

Gure testuinguruan audientzia bereziki zabalak eta denboran mantenduak izan dituzten 3 telesail arrakastatsuenen analisia egingo dut. Telesail horiek egunerokotasunaren hainbat gairen analisia egiteko erabat aproposak dira, izan ere telesailek edozein ikus-entzulek aurre egin liezazkiokeen eguneroko egoerak edo arazoak jorratzen dituzte, hala nola, laneko arazoak, finantza-arazoak, familia-arazoak, etab. Gainera, estereotipo sozialak erabiltzen dira umorea sortzeko, eta pertsonaia bakoitzak garai hartako iruditeria kolektiboaren arketipo desberdin bat irudikatzen du. Hiru serieek Espainiako gizartearen hainbat alderdiren kritika egiten dute, hala nola politikarena, ustelkeriarena, erlijioarena eta desberdintasun sozioekonomikoena. Hala ere, eta edukiok egunerokotasuneko hainbat gai edo eremu lantzeko aproposak diren arren, lan honen helburua disidentzia sexualen analisi kulturala izaki, telesailen dimentsio horretan zentratuko naiz horretarako erabilgarrienak zaizkidan pertsonaiak edo ezenak bakarrik aztertuz. Helburua da disidentzia sexuarek

Espainiako telebistaren eduki jarraituenetan edo ikusienetan izan duten irudikapena aztertzea, horien esanahia historiko eta kulturala lantzea.

Landuko dudan lehen telesaila *Aquí no hay quien viva* da; 2003. urtean eman zen lehenbiziko atalaren emanaldia eta 2007. urtean azkenekoa. Ondoren aztertuko dudan telesaila *La que se avecina* da; 2007. urtean eman zen lehenbiziko atalaren emanaldia eta 2022. urtean eman dute azkenekoa. Eta, bukatzeko *Aída* seriea aztertuko dut; 2005. urtean eman zen lehenbiziko atalaren emanaldia eta 2014. urtean azkenekoa. Bistakoa denez, iturrien analisiak ez du ordena kronologikorik jarraitu. *Aquí no hay quien vivaren* eta *La que se avecinaren* serieen antzekotasunaren ondorio da hori. Zehazki, *Aquí no hay quien viva* amaitu ondoren, aktoreetako batzuek eta ekoiztetxeak bat egin zuten *La que se avecina* izeneko telesaila sortzeko; lehen seriearen jarraipen moduko bat sortzeko, alegia.

Hiru telesail hauen aukeraketa ez da zorizkoa izan, baizik eta analisisiko justifikazioan oinarritutako hautaketa izan da. Izan ere hirurak dira serie oso popularrak, audientzia-markak hautsi dituztenak eta, beraz, Espainiako gizartean eragin handia izateko aukera handiagoa izan dituztenak ikusle gutxiago duten beste batzuekin alderatuta. Horregatik, izendatutako telesail bakoitzaren arrakasta berresten duten datuak aipatzea komeni da. Alde batetik, *Aquí no hay quien viva* telesailak 6 denboraldi izanik, denboraldi guztietan bataz beste %30eko audientziak gainditu zituen. Kasu batzuetan zortzi milioi ikusleren audientzia lortzera iritsi zen (Ander, 2019). Beste aldetik, *La que se avecinari* dagokionez, urteetan zehar ospetsu mantentzea lortu zuen, denboraldi bakoitzean audientzia arrakasta handia mantenduz. Batez beste 4.996.000 ikusle izan ditu, %27'2ko audientziarekin (Redondo, 2022). Eta bukatzeko, *Aída*, Telecinco-n emandako telesaila, Espainiako telebistaren historiako telesail arrakastatsuenetako bat da. Azkeneko denboraldiko azken kapituluan % 22ko audientzia izan zuen, 4.230.000 ikuslerekin, denboraldiko “errekorra” (20Minutos, 2019).

#### **a. *Aquí no hay quien viva* (Antena3, 2003-2006)**

Telesail honek 2000ko hamarkadaren hasierako testuinguru soziokultural espainiarraren irudikapen jakin bat proiektatu zuen. Eta audientziak kontuan hartzen baditugu, badirudi irudikapen horrek oso ondo konektatu zuela ikusleekin.

Telesaila *Desengaño* kaleko 21. zenbakian garatzen da, hiri-erdigunean dagoen eraikinean bizi diren askotariko bizilagunen bizitzetara gerturatzen duelarik ikuslea atal

bakoitzean. Izan ere, saio bakoitza egoiliarren artean sortzen diren egoera komikoak eta koropilatsuak erakusten ditu, dinamika dibertigarri eta kaotiko bat proiektatuz. Umorezko izaera izateaz gain, pertsonaien elkarrizketak eta performatibitate estereotipatu eta gehiegizkoen bidez 2000ko hamarkadan Espainian zeuden genero-berdintasuna, sexu-disidentziak edota immigrazioarekin lotutako gizarte-gaiak ekarri zituzten telebistara.

Telesailak egunerokotasunaren gai horiek nola landu zituen azaltzeko, pertsonaia jakin batzuen analisisian zentratuko naiz. Horretarako Mauri eta Fernando pertsonaiak eta haien arteko harremana landuko ditut lehenbizi: biak dira gazteak eta gizon homosexualak, unibertsitate mailako ikasketak dituzte eta ikasketekin lotutako lanpostuak dituzte, bata abokatua da eta bestea kazetaria. Gorpuzten dituzten genero rolak gizarte osoa blaitzen duten erakusle ere badira, izan ere, homosexualak izaki, Fernandok gizontasun normatibo heterosexual baten portaera antzerakoak ditu. Maurik berriz, oraindik XX. Mendearen hasieran feminitatearekin lotzen ziren portaerak ditu, zentzu horretan, ikuspuntu kontserbakorrek gizon homosexualaz dituzten espektatibei erantzuten die.

Jarraian, Fernando eta Mauriren izaera horien elementuak zeintzuk diren azalduko ditut. Mauriri dagokionez, kazetari ospetsu bat da, irakurketa eta sukaldaritza maite dituena. Gizon zalantzati eta lotsati bezala agertzen da telesailean. Gainera, bere itxura fisikoaz hain arduratua agertzen da interbentzio kirurgiko estetikoak egin dituela. Telesailean estetikarekiko ardura hau beti dago lotua Fernandoren gizarte-onarpenaren bilaketarekin. Hau oso ondo ikusten da hirugarren denboraldiko 24. atalean. Adierazitako atal horretako momentu baten, lan kontuengatik bikotea luzaroan banatuta egon arren, berriz elkartzera doazen momentuan, Mauri pozarren esaten dio pisu-kide duen Beari: “Aurpegian botoxa txertatzera noa, Fernando baidator. Distiratsu aurkitu behar nau”<sup>8</sup>. Bestalde, Fernando gizon lasai baten itxura hartzen du. Gizon maskulino eta makurra da, bere itxura eta jarduteko modua arau heterosexualarekin bat datoz. Maskulinitate heterosexualarekin sozialki lotutako ezaugarriak edo portaerei erantzuten die Fernandok.

Beraz, Mauri da, zalantzarik gabe, telesail honetan gizon homosexualei egozten zaizkion hainbat ezaugarri betetzen dituena, hala nola bere portaera adeitsua, keinuz zein hitz egiteko moduarengatik erakusten duen jarrera edota fisikoarekiko gurtza. Gainera, Fernandok

---

<sup>8</sup> *Aquí no hay quien viva*, 3. denboraldia, 24. atala, 31:45 minutua.

ez bezala, bere sexu-joerarekiko harrotasun estereotipatua erakutsi eta adierazi beharra erakusten du. Honekin lotuta, Mauriri ez zaio axola bizilagunek elkarrekin harreman egonkorra dutela jakin dezaten, eta jarrera hori harrotasun seinaleztat ulertzen da. Fernandok, ordea, behin baino gehiagotan errepikatzen du nahiago duela gainontzekoek bere harremanaz ezer ere ez jakitea. Ideia hau ondo ikusten da lehen denboraldiko 2. atalean. Orduan, auzotarrek oraindik ez dakitenean Maurik eta Fernandok zer harreman mota duten (bikote-harreman sexu-afektiboa), bi emakume-bizilagunek, haien fisikoak erakarrita, Fernando eta Mauri gonbidatzen dute afaltzera. Bi emakumeek uste baitute Mauri eta Fernando pisu-kideak besterik ez direla. Orduan, Fernandok, Maurik eskatzen dion bezala beraien orientazio sexuala neskei azaldu eta gonbidapenari uko egin beharrean, bizikideen proposamenarekin aurrera egitea erabakitzen du, “armairutik irten” beharrik ez izateko. Maurik bere bizilagunekin afaldu eta beraien harreman sentimentala ezkutatu beharko duela jakitean, bikotearen artean hurrengo elkarrizketa ematen da<sup>9</sup>:

**Mauri:** Baina zergatik geratu zara haiekin?

**Fernando:** Ez zitzaidan aitzakiarik bururatu.

**Mauri:** Ba oso onak daude. Gay zarela, mutil-laguna duzula, harreman egonkorra duzula. [...] Ni ez naiz joango. Ba daukat beste zereginik, eta ez dut heterosexual bat bezala jardungo.

Auzo-eremuan ez ezik, jakitun agertzen da Fernandoren desioak arazo bat izan daitezkeela lan munduan eta, ondorioz, bere bizitza pribatuaren dimentsio hau ezkutatu egiten du. Eremu honetan, estereotipoei jarraitu edo ez, ikusle homosexualek konexioa izan zezaketen Fernandoren ardura horrekin, izan ere, homosexual eta lesbiana askoren esperientzia izan da, ohiko terminologia popularra erabiliz, “armairuan” bizitzea erabakitzea lan- edo gizarte-diskriminazioa ez jasateko.

Lesbianismoaren errepresentazioa bigarren denboraldian agertu zen. Kasu honetan, protagonistak Ana eta Bea dira. Bea al baitaria da, hau da, zaintzarekin lotutako profesio batean dihardu, eta Fernandoren kasuaren antzera, bere intimitate sexuala publiko ez egiteko ideia bere izaeraren ezaugarri bezala proiektatzen du telesailak. Serieak, Bea pertsonaiaren

---

<sup>9</sup> *Aquí no hay quien viva*, 1. denboraldia, 2. atala, 28:40 minutua.

bitartez, gizon homosexuala edo emakume lesbiana izatearen desberdintasunak azpimarratzen ditu. Haren arabera, emakume bat armairutik ateratzen denean, ez da gizon homosexual baten “armairuko irteera” bezala hautematen. 2. denboraldian, 4. kapituluan, bere hitzetan adierazten du, Mauriri esaten dionean<sup>10</sup>:

**Bea:** Mauri, baina ez da gauza bera mutil baten kasua edo neska batena. Gizon batentzat oso erraza da armairutik ateratzea, orain gay izatea oso modan dago.

**Mauri:** Baina, zer diozu? Emakumeek beti errazago izan baduzue.

**Bea:** Ezer ez. Lesbiana izatea oraindik tabu bat da.

Azaldutakoarekin batera, 2. denboraldian, 8. kapituluan, Mauri eta Bea pisu-kideak direnean, Bearen anaiak bisita bat egiten die haien etxera. Orduan aitortzen dio Beak Mauriri bere familiako inork ez dakiela lesbiana dela. Arrazoi beragatik, eta bere anaia Salvadorri bere sexu-orientazioa ezkutatzeko asmoz, Beak Mauriri aitortzen dio bikote heterosexual bat balira bezala jokatu behar dutela<sup>11</sup>:

**Bea:** Nire bikotekidearekin bizi naizela esan diot. Zu eta biok senargaiak garela. Nire familian inork ez baitaki lesbiana naizela.

**Mauri:** Zure anaiak ere ez daki?

**Bea:** Ez luke ulertuko.

Maurik, nolabait irakaslearen jarrera hartuaz, Beak ez baleki bezala, adierazten dio “lesbiana izatea ez da gaixotasun bat, ezta delitu bat ere (...) Zure sexualitatea onartu behar duzu, lesbiana zara eta ez da ezer gertatzen”.

Bestalde, Bearen bikotea, Ana, profesioz hegaldi-laguntzailea da eta hasierako ataletan heterosexual bezala azaltzen da, Bearekiko atrakzioa sentitu arren. Bere hitzetan beldurra eragiten dio bere inpultso, emozio eta maitasun horri bide ematea. Pertsonaia honen bidez errepresentatzen den beldur sakon hori homosexualitatearen barneratutako beldur gisa definitzen du Alberto Mirak, “gizabanakoak bere baitan gizarte-sistemak debekatzen dizkion desioak onartzean sortzen dena” (Mira, 1999). Anak ez du nahi bere identitate lesbiana

---

<sup>10</sup> *Aquí no hay quien viva*, 2. denboraldia, 4. atala, 33:45 minutua.

<sup>11</sup> *Aquí no hay quien viva*, 2. denboraldia, 8. atala, 27:00 minutua.



publikoki onartu, eta agian bere buruarekiko ezta ere, edo ez du nahi Bearekiko sentitzen duen sexu-nahia edo -erakarpena aitortu nahi.

Hainbat aldiz, egoiliarrek zalantzan jartzen dute Anaren eta Bearen arteko harremana. Hau da, zalantzan jartzen da bi emakumeek elkarren artean duten harreman mota, bien itxura fisikoan soilik oinarrituta. Biek erantzuten diote garaiko edertasun-kanonei, eta bizilagunen arabera, bi neskak ederrak izatea eta bikote lesbikoa izatea ez dira bateragarriak. Antza denez, sozialki orokortutako aurreiritziez gain, telesailak aurkezten duenak ikusleari aditzera ematen dio edozein ezaugarri edo aspektu, fisiko edo psikologiko, edozein sexu-orientazioarekin bateragarria dela, estereotipoak eta kliseak gezurtatuz. Kasu honetan, bizilagunen erreakzioak “heterosexualitate ikusezinari” erantzuten dio. Hau da, emakumeen kasuan, sozialki ez da onargarria edo ulergarria gizonaren beharrik ez izatea, independentea izatea edo beste emakume batekin harreman sexual-afektiboa izatea, Anaren eta Bearen kasuan bezala. Beste era batera esanda, ulertarazten da lesbiana edo feminista den emakumea, bestelako erremediorik ez duelako dela. Baldintza jakin batzuk direla eta, uste da emakume horiek ez dutela inoiz gizonen onarpenik izango. Horregatik, pentsamendu horren arabera, bizilagunek ez dute ulertuko Ana eta Bea hain pertsona ederrak izanik eta gizon batekin egoteko aukera izanda, beraiek beren borondatez aukeratzea gizonekin egon nahi ez izatea.

*Aquí no hay quien vivarekin* amaitzeko, serieak Espainiako fikziozko lehen gay ezkontza proiektatu zuen. 2005ean Berdintasunezko Ezkontzari buruzko Legea onartu eta bi hilabetera ematen da (EAO, 13/2005). Abel eta Diegoren arteko ezkontza da, bigarren mailako bi pertsonaiaren artekoa. Ospakizuna pozarren hartzen dute auzokideek. Hau da, auzokoek homosexualitatearen aurrean duten posizionamenduan dramatizaziorik eza azaltzen da. Are gehiago, eraikinean bikote gay bat egotea positiboa eta modernoa dela uste dute.

Atal honen helburua, beraz, homosexualek eta lesbianek beren desio sexuala hainbat gizarte-esparrutan ezkutatzeko zuten beharra ikusaraztea da, bai familiarekin edota lan eremuan ere. Serieak armairutik irtetera eta norberak nahi duena maitatzera bultzatzen du pertsonaiekin identifikatuta sentitzen den oro. Eta horren ondorio dira bai Espainiako lehen ezkontza gayaren irudikapena, gainerako bai bizikideen erreakzio positiboa.

**b. *La que se avecina* (2007-2022)**

Aztertu beharreko hurrengo iturria *La que se avecina* da, lehenengo azpiatalean landutako *Aquí no hay quien viva* telesailaren jarraipena da. 2007an estreinatu zen eta gaur egun emititzen jarraitzen da. Bere aurrekariarekin alderatuta, *La que se avecina* pertsonaia berriak eta istorio desberdinak ditu. *Aquí no hay quien viva* bezala, dena bizilagunen komunitate batean gertatzen da, kasu honetan ez hiri erdigunean baizik eta periferian. Kapitulu bakoitzak bizilagunen artean gertatzen diren egoera komikoak eta korapiloak erakusten ditu. Umore garratza eta pertsonaien estereotipoen gehiegikeria ditu ezaugarri.

Esan bezala, aurreko telesailaren eta *La que se avecina*ren arteko jarraipen narratibo bat ematen da, naiz eta izenburu ezberdinak izan. Konkretuki, Raquel, *Aquí no hay quien viva* agertzen den pertsonaia, eta Alba, *La que se avecina* azaltzen dena, antzeko istorioak interpretatzen dituzte. Izan ere, bi pertsonaiek duten antzeko ezaugarriak aztertzea interesgarria izan liteke analisia garatzeko. Biek emakume transexual bat ordezkatzeko dute, gizonetako pertsonaia baten aldetik diskriminazioa jasaten duena. *Aquí no hay quien viva* Raquelek bigarren mailako papera du eta, beraz, tarte txikia hartzen du seriean. Bere pertsonaia bosgarren denboraldian agertzen da lehen aldiz, bera eta bere arrebaren familia komunitatera iristen direnean. Denek Raquel izena erabiltzen dute berarekin aritzen direnean, bere koinatuak izan ezik. Azken honek, Higinio izena duenak, Raquelengana zuzentzen den bakoitzean neska izen maskulino zaharra erabiltzen du, bere jarrera transfobikoa agerian utziz.

Aurreko telesailean ez bezala, *La que se avecina*-n pertsonaia transexualak protagonismoa badu. Alba Recio, Antonio eta Bertaren seme bezala (Álvaro izenarekin) agertzen zen telesailaren lehen denboraldietan. Garai hartan Alba genero maskulinoarekin identifikatzen zen. Hasiara horretan mutil gay bat zen, bigarren mailako pertsonaia betiere. Bigarren denboraldian, Álvaro gurasoen intolerantzia eta homofobiaren ondorioz etxetik alde egin zuen eta zortzigarren denboraldira arte ez da berriro agertuko. Kasu honetan, Alba bezala eta pertsonaia protagonista gisa azalduko da. Orduan bai, emakume transexual bezala aurkezten du bere burua.

*Aquí no hay quien viva* telesaileko Raquelek, Higinioaren diskriminazioa jasaten duen bezala, *La que se avecina*ko Albak bere aita Antonioren mespretxua jasaten du. Antonio

gizon nazionalista da, matxista, xenofoboa, eta edozelako disidentzia sexualaren aurkakoa. Telesailak era umoretsuan proiektatzen du Antonioren izaera hau eta bere portaera erreakzionario guztia; honek eragiten du joera horiek barregarri uztea eta era horretan nolabait baztertzea, baina, era berean, portaera horien desdramatizazioa eta normalizazioaren efektua ere izan dezake. Bere jarrerren umorezkotasuna hainbat kasutan ikusi daiteke, esaterako emazteari errekonozitzen dionean, penaz, “jada ez zara ezkondu nintzen emakume leial eta otzana”. Iruzkin horren aurrean, Albak bere amaren ordeztuz erantzuten dio Antonioren: “Eta ez da berriro ere horrela izango, matxista!”<sup>12</sup>.

Bi pertsonaia transexualek etengabe azaltzen dute beren genero-identitatea; horren aurrean, Antoniok eta Higiniok Albaren eta Raquelen genitalak aipatzen dituzte (hurrenez hurren), nesken generoa sexu biologiko maskulinora sinplifikatuz. Egoera hau ondo ikusten da *Aquí no hay quien vivaren* bosgarren denboraldiko 2. kapituluan, Raquelek emakumea dela baieztatzen duenean<sup>13</sup>. Higiniok, Raquelen hitzak entzun ondoren zera erantzuten du: “Raúl, zakila daukazu, hori egitate bat da”. Egoera horren beste adibide argi bat *La que se avvicinaren* bederatzigarren denboraldiaren 8. atalean ematen da, Antoniok Alba mehatxatzen duenean, sexu-berresleipena ez diola ordainduko esanez<sup>14</sup>.

**Antonio:** Dirua badago zure gutzietarako, niretarako ere.

**Alba:** Kapritxoa al da sexu-aldaketa bat?!

Ikus dezakegunez, Higiniok eta Antoniok etengabe adierazten dute haientzat harreman zuzena eta “naturala” dagoela genitalen eta bakoitzaren generoaren artean. Bi telesailak agerian uzten dute trans pertsona batzuek genitalen kirurgiatik nahitaez igarotzeko jasaten duten presioa, hala nola Alba eta Raquelen kasuak, biak argi eta garbi “identifikatzeko moduko emakumeak” izan arren.

Analisiarekin jarraitu aurretik, orain arte aztertutakoa kontuan hartzen badugu, komeni da testuinguru historikoa erreparatzea, harremana baitago telesailtako pertsonaia transexualen eta garai hartako pertsona transen egoera sozial erreala artean. Alde batetik, *Aquí no hay quien vivan*, Raquel agertzen da lehen aldiz 2007an, Espainian 3/2007 Legea onartzen denean. Lege horren bidez, transexualak lehen aldiz aitortzen dira eta errekonozimendua dute BOEko lege batean. Bestalde, aztertutako Alba eta Raquelen

---

<sup>12</sup> *La que se avvicina*, 9. denboraldia, 12. atala, 01:40 minutua.

<sup>13</sup> *Aquí no hay quien viva*, 5. denboraldia, 2. atala, 37:10 minutua.

<sup>14</sup> *La que se avvicina*, 9. denboraldia, 12. atala, 11:00 minutua.

pertsonaiek duten papera bera aldatu egiten da telesailak denboran aurrera egitean. 2007an Raquel bigarren mailako pertsonaia den bitartean, 2017an, Albaren pertsonaia *La que se avecinaren* protagonistetako bat da.

Atal honetan, hemendik aurrera, berariaz aztertuko dugu Albaren pertsonaia protagonista, denborarekin agerikoa denez haren bilbea lehen mailakoa bihurtzen baita. Alba harreman sentimentalak arazo bezala bizitzen dituen pertsona bezala ageri da. Albaren bilbea gizonekin partekatzen duen harremanaren laburpena da gehienbat. Albak gizonezkoen baliozkotzea bilatzen du beti, arrazoi batengatik edo besteagatik bere maitasun harreman guztiak amaitzen baitira. Alba, zortzigarren denboraldian lehen aldiz agertu zenetik, gizon ezberdinekin izango ditu harremanak, zehazki Leo, Teodoro, Enrique eta Alejandroekin. Aipatutako mutil-lagun guztien artean, Teodoro da gehien interesatzen zaiguna. Bien arteko harremanean Albaren sexu-ebakuntza gai protagonista da. Biek sexu-harremanak izan nahi dituzte, baina aipatutako kirurgia gertatu arte itxaron behar dute. Teodorok, kasu honetan, ez du Albarekin sexurik izan nahi, hark genitalen berresleipen-kirurgia egin arte. Itxarondako eguna iristen denean eta sexu harremana izaten hasten direnean, Teodorok etetea erabakitzen du. Telesailaren beste momentu batean Teodorok “gertatutakoa” kontatzen dio bere anaiari: “Ez zaitu besarkatzen. Bagina horrek ez du bizitzarik. Gauza bitxia da”<sup>15</sup>.

Aipu horren arabera, emakume transexual bat emakume arrotza da, intrusa bat, ez da “benetako” emakume bat; ez da erreala, ez naturala, ez funtsezkoa. Hau da, serieak, Albaren kirurgiaren bidez, agerian usten du kirurgia beharrezkoa dela trans pertsonentzat, gizarteak inposatu baitu gorputz koherenteak izatea neurri handi batean. Eta hala eta guztiz ere, emakume transexual bat inoiz ez dela benetako emakume bat izango proiektatzen da nolabait; “kontrako” norabidean, emakume baten marka nagusi eta totala genitala dela proiektatzen da zeharkako forma batean.

Testuingurua edo ikuspuntu orokortu hori kontuan izanda, ulergarria da Albarentzat kirurgia oso inportantea izatea. Hala ere, serieak agerian uzten du kanpoko eta gizarteko arrazoi batzuek eragina dutela kirurgia hori egiteko premian, Albaren erabakian eragina dutenak. Kasu honetan, Teodoro bikotekidearen sexu-desioa edo, lehen ikusi dugunez, bere Aitaren jarrera. Azken aipamen honek erakusten duen bezala, sexu-berresleipenaren ondoren

---

<sup>15</sup> *La que se avecina*, 9. denboraldia, 19. atala, 33:50 minutua.

ere, Albak ez du Teodoro erabat asetzen. Transfobiak emakume transexual bati "benetakotasun" kategoria inoiz emango ez diola islatzen du horrek, nahiz eta genitalen berresleipen bat egin.

Une batez testuinguru historikoari erreparatzen badiogu, konturatuko gara kolektibo transexualaren egoera legegileak eta soziokulturalak nabarmen egin duela aurrera 2023an, 4/2023 Legearekin. Kontuan izan behar dugu, *La que se avecinaren* azken denboraldia 2022an estreinatu zen. Orduan, transexualitateak patologizatuta eta gaixotasun gisa diagnostikatzen zen, eta, beraz, oraindik ere genero-disforia gisa definitzen zen. Atal honetan, Albak eta Raquelek genitalen berresleipeneko kirurgia bat egin nahi dutela ikusi dugu, kolektibo transexualak bizi duen presioa eta dagoen estigma soziala ikusaraziz: generoa sexu biologikoarekin zuzenean lotzen jarraitzen da. Eta, hala ere, sexua aldatzeko kirurgia egin arren, emakume transexualak seinalatuak izaten jarraitzen dute.

### c. *Aida* (2005-2014)

*Aida* Telecinco-n, 2005etik 2014ra bitartean emandako telesaila da. Aida Garcíaen pertsonaia protagonistak ematen dio telesail honi izena. Audientziak aurretik ere ezagutzen zuen fikziozko emakume hau, izan ere, telebista kate bereko *7 vidas* telesaileko pertsonaia zen, bigarren mailako protagonismoa zuena. Telesail horrek azpimarratu egin zituen gero *Aida* telesaileko pertsonaia berak mantenduko dituen ezaugarriak: auzo popular bateko emakumea, garbiketako langilea, dibortziatua, alkoholiko ohia eta ikasketarik gabea. Izan ere, *7 vidas* telesailean, Madril erdiguneko klase ertaineko protagonista batzuen etxea garbitzen ezagutu zuen audientziak. Bere pertsonaiak hainbeste arrakasta lortu zuen, seguruenik, Aida sortzeko ideia pertsonaiak eskaintzen zituen aukera narratiboengatik etorri zela. Horrela, *Aida* telesailak izen bereko pertsonaiaren eguneroko bizitzara gerturatu zuen audientzia, bere etxera eta auzora. Telesaila bere aitaren heriotzarekin hasten da, Madrilgo Esperanza Sur auzoko etxea uzten baitio herentzia gisa.

Pertsonaiei dagokienez, erraz ezagutzeko moduko figurak agertzen dira, imaginario kolektiboaren estereotipoetan eta aurreiritzietan erabat oinarrituta baitaude. Alde batetik, Luisma, Aidaren anaia, drogak markatutako iragan bat izanik, bere bizitzari norabide berri bat eman nahi dion pertsonaia da, adikziorik gabea. Bestalde, Lorena (Aidaren alaba), langile-aldirietako nerabe "chonia" da, mutil-lagun asko eta bizitza sexual aktiboa dituen.

Jonathan (Aidaren semea), “cania” eta ganberro samar bezala errepresentatutako gazte arazo-zalea. “Choni” eta “cani” hitzak, lagunarteko termino informalak dira, sarritan Espainian nerabe baten estereotipo bati erreferentzia egiteko erabiltzen dena. “Choni”-ak emakume baldar edo gustu ez oso finekoak kontsideratzen dira. “Cania”, berriz, terminoaren baliokide maskulinoa delinkuentziarekin lotzen da. Beste pertsonaia garrantzitsu bat Mauricio Colmenero da. Auzoko Reynolds tabernaren jabea da eta telesailak bere izaera arrazista eta homofoboa azpimarratzen du, pertsonaia beraren portaerak erridikulizatu nahian. Baita ere dago Paz, prostituzioan aritzen zen Aidaren haurtzaroko bizilaguna. Hurrengo pertsonaia Eugenia du izena, seriearen protagonistaren ama da, eta batera bizi dira. Azkenik, Chema eta Fidel dira gure azkenengo bi protagonistak. Chema auzoko janari-dendaren jabea eta Fidelen aita da. Fidelek bere aitaren denetariko dendan laguntza eskaintzen du noizean-behin. Chemak aspaldi izan zuen erromantze bat Aidarekin, baina orain -telesailaren proiektzioa kokatzen den denboran- lagunak baino ez dira. Telesailak, protagonisten bitartez, orduko gizarteko eta eguneroko hainbat gai jorratzen ditu, ikuspegi komiko batekin. Familia-harremanak, seme-alaben hazkuntzaren erronkak, lan-arazoak, maitasuna, adiskidetasuna eta auzo-dinamikak aztertzen ditu. Dena auzo popular eta langile batean gertatzen da.

Aipatutako pertsonaia guztien artean Fidel da lan honetarako gehien interesatzen zaidana. Fidel nerabe gaztea da, delikatua eta kultu bezala agertzen da, edo izaera hau azpimarratzen zaio bereziki besteekin kontrastean. Irakurzale amorratua da eta bere harreman pertsonaletan mutil sentibera. Bere pertsonaia homosexual estereotipatua giro umore eta ironiko batean garatzen da, baina bere adineko nerabe gay batek bizi dezakeen errealitatek urrundu gabe. Hasieran Fidelek ez zuen bere sexu-orientazioa edo identitatea argi, baina denborarekin bere burua aurkitzen doa. Hau da, bere pertsonaia heldu egiten da telesaila aurrera egin ahala. Hala ere, bere izaera eta jokaeragatik, hasieratik bere lagun eta senideek bazekiten sexualitate “desberdina” izango zuela. Pertsonaia hau Jonathanren laguna da, adin berekoak dira eta bera izan zen bere lehen “amodio platonikoa”. Fidelen eta Jonathanen arteko adiskidetasun harreman horrek, adin bereko bi gazteren bi irudikapen erakusten ditu, kasu honetan bi polo kontrajarri direnak. Telesailak kontrakotasun hori azpimarratzen du. Fidel pertsonaia feminizatua bezala agertzen den bitartean, Jonathan bereziki jokabide eta portaera maskulinoekin lotzen da uneoro. Horren adibide garbia da telesailaren lehen

denboraldiaren 13. kapituluan, Luisa eta Jonathan Fiden jokabidea “maskulinizatzen” saiatzen direnean, azken hau auzoko mutil gaiztoengandik bakarrik defendatu ahal izateko estrategia bezala agertzen delarik. Orduan, Jonathanek ironiaz eta iseka eginez galdetzen dio Fideli<sup>16</sup>: “Zergatik uste duzu errespetatzen nautela? Tximeleten kolezio polit bat izateagatik?”. Fidelek erantzuten dio esanez:

**Fidel:** Mutil gaizto batean bihurtu nahi nauzue? Bada, ez dit inork irabaziko. Hemendik aurrera zapatilak sweater-ekin konbinatzeari utziko diot.

Aipu honek, imajinario kolektiboak gay bati dagozkiola uste duen ezaugarriak azpimarratzen ditu. Ausardiatik urruntzen den eta errespetagarria ez den pertsona. Fiden pertsonaia era irekian da homosexuala eta gizarteak gizon baten gorputzean feminizazio bezala kontsideratzen dituen formak errepikatzen edo erreproduzitzen ditu, hitz egiterakoan, mugitzerakoan, eta orokorrean, bere gorputzaren espresioetan. Janzkerari dagokionez, bere estiloa fina da, beti ondo jantzita eta alkandora edo jertsearekin azaltzen da. *Aquí no hay quien viva*-ko Maurik bezala, jendarteak gizon homosexual bezala ulertzen dituen gorputzen ezaugarriak ditu era askotan, oso azpimarratu eta esajeratua: keinuak, hitz egiteko modua edo arroparekiko duen grina. Karakteristika propio horiek-izango dira Fiden pertsonaiaren narratiba osoa markatuko dutenak. Hainbatetan diskriminazioa jasaten du, bai gay izateagatik, bai “pringatu”<sup>17</sup> bat izateagatik. Bigarren denboraldiaren 14. kapituluan<sup>18</sup>, Luisamak txantxa bat xahutzen dio Fideli, eta hatz bat moztu izan balu bezala jokutzen du. Fidel, izututa, aulki bat eskatzen hasten da “zorabiatzen ari delako”. Orduan Luisa eta Mauricio (eszenan ere ageri dena) beren erreakzioaz trufatzen hasten dira:

**Luisa:** Txantxetan nabil! Zein engainagarria zaren [...] Engainagarria, baina “pringatu” zentzuan.

**Mauricio:** Ah ze ipurtzuloa zaren, mutiko!

Nabarmendu behar da, telesailean lehen aldiz agertzen denean, Fiden pertsonaia haur ahul gisa aurkezten dela, berarentzat arriskutsua izango den ingurune batean. Hori gertatzen da Fidel lehen aldiz auzora iristen denean, lehen denboraldiko 2. kapituluan<sup>19</sup>.

<sup>16</sup> *Aida*, 1. denboraldia, 13. atala, 06:40 minutua.

<sup>17</sup> “Pringatu” terminoa egoera txarrean dagoen edo egoera deseroso edo desabantailatsu baten biktima izan den pertsona deskribatzeko erabiltzen den hizkera arrunteko esamoldea da, gaztelaniaz. Normalean, engainatu edo tranpa batean erori den norbaiti defintzeko erabiltzen da. Harrapatua sentitzen den edo nolabait kaltetua izan den norbait deskribatzeko ere erabil daiteke.

<sup>18</sup> *Aida*, 2. denboraldia, 14. atala, 16:30 minutua.

<sup>19</sup> *Aida*, 1. denboraldia, 2. atala, 07:30 minutua.

Amarekin denboraldi luzea eman ondoren, Chemarekin, bere aitarekin, biziko da berriro. Bere aitaren dendara sartzan denean, Fidelek azaltzen du nola haur batek “arrazoirik gabe” ikusteko betaurrekoak hautsi dizkion. Aitak, kezkatuta, besarkada bat ematen dio, eta baieztatzen du mutiko oso sentibera dela. Aida, eszenan bertan, honela dio:

**Aída:** Sentikorregia auzo honetan bizitzen hasteko.

Fidel, bosgarren denboraldian bere homosexualitatea aitortzen duenetik, isekaren objektu bihurtzen da, batez ere, Jonathanen eta Mauricioeran gutxiespenak jasango ditu. Une horretatik aurrera, gainerako pertsonaiek termino desberdinak erabiliko dituzte, beti konnotazio negatiboarekin, harengana jotzeko: marika, truxa, bujarroia, bitxia, marikona, eta abar<sup>20</sup>. Hala ere, Fidel ez da bere buruaz lotsatuko. Izan ere, testuinguru historikoari erreparatzen badiogu, kolektiboak onarpen sozial eta legala lortzen duen heinean, Ezkontza Homosexualaren Legearekin adibidez, Fidelek bosgarren denboraldian zabal-zabal aitortzen du bere homosexualitatea.

Bestalde, nahiz eta seriearen zatirik handiena ikuspegi komiko eta parodiko batetik garatzen den, zenbait gai ere puntu sentimentalago batetik jorratzen ditu. Kasu honetan, Chemak eta Fidelek partekatzen duten harremana seriearen alderdi emozionalaren adibide garbia da. Fidelek, besteek diskriminatu arren, aitaren babesa du beti. Serieak, Chema pertsonaiaren bitartez, gizon estereotipikoaren figuratik urruntzen den maskulinitatea erakusten du. Chema tolerantea eta enpatikoa da. Hala erakusten du bere semea “armairutik irteten” denean. Hasieran Fidelen sexu-orientazioa ulertzen ez duen arren, azkenean onartu egiten du eta semea edozein eraso homofoboren aurrean babestuko du. Chemak bere semearekin duen jarrera babeslearen adibide garbia lehen denboraldiko 5. kapituluaren ikusten da<sup>21</sup>, Luisamak Fidel “oso arraroa” dela esaten duenean. Baieztapen horren aurrean, Chemak erantzuten du esanez:

**Chema:** Ez da arraroa, berezia da [...] auzora etorri denetik bere baikortasuna eta poza galdu ditu. Eta okerreña da nik ez dakidala zer egin. Aita txarra naiz.

Azkenik, telesail honetan, Mauricio Colmenero da aztertzea interesgarria izan daitekeen beste pertsonaia bat. Itxuraz gizon heterosexual maskulino baten ezaugarri guztiak dituen pertsonaia da Mauricio. Eta itxuraz diot, batzuetan serieak Mauricioaren

---

<sup>20</sup> Gaztelaniazko terminoak dira, gizon homosexual bat edo afeminatutzat edo ez oso maskulinoztat jotako portaerak dituen norbait mespretxuz aipatzeko erabiltzen direnak.

<sup>21</sup> *Aída*, 1. denboraldia, 5. atala, 07:40 minutua.



maskulinitasuna eta irudi makurra hausten baititu. Espainiako diktaduraren garaiko gizon nostalgikoa, kolektibo ahulenen aurka agertzen dena da, hala nola LGTBIQ+ komunitatea, etorkinak, emakumeak, etab. Bere jarrera hori seriean islatzen da, oso modu ireki eta ikusgarrian erakusten baitu auzoan bizi diren bestelakotasun guztiekiko mespretxuarekin. Esan dudana bezala, homofobia izateaz gain, jarrera misoginoak ere baditu, esaterako bosgarren denboraldiko laugarren kapituluan ikusi daitekeen bezala<sup>22</sup>. Mauricio, Fidel, Luisma, Chema eta beste gizon batzuk saskibaloiko txapelketa baterako entrenatzen ari dira. Horien artean dago Lorena ere, taldeko emakume bakarra. Une batez, denak pilota pasatzen hasten dira Lorena jokotik kanpo utzita. Egoera horren aurrean, Lorenak erreakzionatu egin du esanez: “Joan zaitezte denok pikutara!”. Orduan hasten da Maurizio, sarkastikoki, iruzkin matxistak esaten:

**Mauricio:** Gizajoa, neskatxa negarrez hasiko da! Makillajea hondatuko zaio. Konturatu behar zara emakumeek beste kirol batzuk dituzuela. Igeriketa sinkronizatua, irristaketa artistikoa, striptease-a.

Gizon makal eta maskulino irudi hori apurto egiten da batzuetan, eta agerian uzten du haren alde ahula. Horrela, serieak maskulinitatearen bi alde guztiz kontrajarriak erakusten ditu. Ideia horren adibide garbia seigarren denboraldiko 18. kapitulua da<sup>23</sup>, Mauriciok Chemaren dendako saltzaile berria hiltzailea dela jakiten duenean. Mauricio, izututa, korrika doa janari-dendara, Chemari dena kontatzeko. Baina, aldiz, Fidelekin topo egiten du, eta hiltzaile bat enplegatutzat duela jakinarazten dio. Orduan sartzen da hiltzailea eszenan, eta Fidelek eta Mauriciok berdinean erantzuten dute, dardarka eta oihuka. Azkenean, biak korrika eta oihuka irteten dira saltokitik. Egoera honekin serieak erakusten du homosexual estereotipatu batek eta “gizonezko” batek berdinean erantzuten diotela arrisku-egoera bati. Kasu honetan ere, Fidel bezala, Mauriciok ere afeminatuta jokatu du.

Atal honetan, irudikapen estereotipatuak agertzen dira helburu komiko batekin. Mauricioren kasuan bezala, komedia egitea bilatzen da, elkarren artean oso desberdinak diren pertsonaien bidez. Gainera, klixez betetako figura horiek ikusleen errekonozimendua errazten dute. Ez bakarrik Fidel eta Mauricio, baizik eta telekomedia honetako pertsonaia gehienak garai hartako klase ertain-baxuko irudi arketipikoak dira.

---

<sup>22</sup> *Aida*, 5. denboraldia, 4. atala, 13:00 minutua.

<sup>23</sup> *Aida*, 6. denboraldia, 18. atala, 31:00 minutua.

## ONDORIOAK

Espainiako telebista-serieek, 2000ko hamarkadaren hasieratik gaur arte, agerian utzi dituzte sexu-disidentziak, eta fikziozko bilbeetan sartu dituzte. Aztertutako iturrien audientziak kontuan hartzen baditugu, ikusle kopuru handi batengana iritsi diren antzezpenak dira.

Aztertutako edukiak estereotipoetan oinarrituta eraiki dira, ikusleari fikziozko pertsonaiak sinplifikatzen eta identifikatzen laguntzeko. Kasu honetan, aztertutako telesailek arketipo estereotipatuak erabiltzeaz gain, errepresentazio alternatiboak osatu dituzte baita ere. *Aquí no hay quien vivan*, horren adibide garbia ematen da. Mauri eta Bea homosexualitatearen eta lesbianismoaren profil estereotipatuak direla ikusi dugu. Baina, bestalde, Fernando eta Ana profil alterbatiboak dira, sozialki alde zurretik eratuak izan diren sinesmenak hausten dituzten pertsonaiak. Hau da, Mauri homosexualaren arketipoari hurbiltzen zaion bitartean, Fernando ideia estereotipatu horretatik erabat urruntzen da. Berdina gertatzen da Bea eta Anarekin. Serieak homosexualitatea eta lesbianismoa desmitifikatzen laguntzen duten bi errealitate kontrajarri erakusten ditu. Hori oso garrantzitsua da serie horien irismena eta audientzia handiak kontuan hartzen baditugu. Telesail horiek funtsezko eginkizuna betetzen dute sozializazio-eragile gisa; izan ere, haien elkarrizketek eragina dute gure ideia eta portaeretan, eta imaginario kolektiboa baldintzatzeko ahalmena dute. Funtsezko zeregina dute errealitateari buruz dugun pertzepzio partekatua eratzeko. Ikusi dugunez, Espainiako errealitate soziokulturalaren irudi eta kontzeptu multzo bat transmititu eta proiektatzeaz gain, gizartean ideia-multzo berri bat sortzen eta erreproduzitzen laguntzeko gaitasuna ere badute. Albaren kasuan, *La que se avecin* pertsona transexualek bizi duten presioaren errealitatea irudikatzen du, ikus-entzuleari hurbilagoko ikuspegia emanez, gure gizarteko azaleko-iruditeria hautsiz eta estereotipo errealagoak eta positiboagoak eratzten lagunduz, disidentzia sexualen normalizazio-prozesuari lagunduz. Azpimarratzekoa da, telesail horiek umorezko telesailen testuinguruan kokatzen diren arren errepresentazioek beraiek esperientzia hauen eta gorputz hauen normalizazio-prozesua ekar dezakete.

Azpimarratu beharreko alderdi bat telesaila eta Espainiako legegintzaren artean dagoen bilakaera paraleloa da. Batez ere, 2000ko hamarkadaren hasieran, Espainiako

gizartearen heldutasun politikoan, testuinguru historikoan ikusi dugun bezala, genero-disidentziekin bat datozen gizarte-gaiak errealismo handiagoz landu dira. *Aquí no hay quien viva* telesailan ikusi dugu, Abel eta Diegoren fikziozko ezkontzarekin, Zapateroren gobernuak homosexualen arteko ezkontza zibila baimentzen duen 13/2005 Legea onartu eta bi hilabetera emana. Ikusi dugu, halaber, serie honetan bertan nola txertatzen den transexuala den pertsonaia bat, 3/2007 Legea onartzearekin batera. Edo pertsonaia transexualek duten irudikapena eta papera bera aldatu egiten da denboran zehar Espainiako testuinguru soziokulturalak egiten duen heinean. 2007an Raquel bigarren mailako pertsonaia da, hamar urte geroago 2017an, Albaren pertsonaia protagonistetako bat da.

Nabarmendu beharreko azken ezaugarria umorearen erabilera da. Umore sarkastikoa da, pertsonaiaren ezaugarri pertsonalekin umorea egiteko erabiltzen dena. Karakteristika hau oso argi ikusten da *Aidan*, Fidelekin, edota disidentzia sexualak ez diren pertsonaiekin. Telesail honetan bilatzen da errealitate sozial bat parodiatzea, batez ere iseken bidez. Kasu honetan, egoera hau puztu egiten da barre-audioak sartuz, ikusleak barre egin behar duen momentuak argi eta garbi adierazteko. Umorea da telebista jeneralisten tresna preziatuena; 2000ko hamarkadaren amaieran, produkzio-etxeak eta telebista-kateak lehian aritzen dira ikus-entzule gehien izateko. Eta hor dute sexu-disidentzien irudikapenek irismen-gaitasun handiagoa eta, beraz, gizarte-iruditeria aldatzeko erraztasun handiagoa. Lehen aipatu dugun bezala, fikzioak errepikapenean oinarritutako gizarte-esparru berri bat sortzeko gaitasuna du, umorearen bidez izan edo ez.

## BIBLIOGRAFIA

- Ander, A. (2019). 'Aquí no hay quien viva': así era la serie española que batió récords de audiencia. *20Minutos*.  
<https://www.20minutos.es/cinemania/series/aqui-no-hay-quien-viva-asi-era-la-serie-espanola-que-batio-records-de-audiencia-124885/>
- Arce, J. M. M. (2008). Los socialistas en el poder (1982-1996). *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, (20), 43-71.
- Aresti, N. (2010). *Masculinidades en tela de juicio*. Hombres y género en el primer tercio del siglo XX. Cátedra, Universidad de Valencia. P. 13. Norberak itzulia.
- Butler, J. (2004). *Undoing gender*. Psychology press.
- Butler, J. (2006). Regulaciones de género. *La ventana. Revista de estudios de género*, 3(23), 7-36.
- Butler, J. (2007). *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. Routledge.
- Campos Marín, R. (2016). La construcción psiquiátrica del sujeto peligroso y la Ley de Vagos y Maleantes en la España franquista (1939-1970).
- Castells, M. (2001). La Galaxia Internet: Areté. *Plaza & Janés Editores, Barcelona*.
- Castells, M. (1996). El surgimiento de la sociedad de redes. *La era de la información, Economía, Sociedad y Cultura, I*.
- De Miguel, J. M. (1991). El problema social del SIDA en España. *Reis*, 75-105
- Díaz Delgado, S. (2021). La movilización contra el estigma del sida: La ramificación del movimiento LGTB español de los setenta a los noventa.
- Díaz, W. D. Á. (2013). Hacia una reflexión histórica de las TIC. *Hallazgos*, 10(19), 213-233
- Écija, A., Écija, D., Velilla, N. G., Rodrigo, J., Sánchez, A. eta Sastre, J. (2005-2014). *Aída*. Globomedia.
- Fernández, F. Q. (2023). Capítulo 11. La construcción de la Sociedad de la Información en el último tercio del siglo XX: visiones, realidades y políticas. *Espejo de Monografías de Comunicación Social*, (13), 207-228.
- Fotografía de la Manifestación del Orgullo LGTBIQ+ en la Gran Vía de Madrid. (s.f.).  
[https://felgtbi.org/wp-content/uploads/2019/12/2010\\_w.jpg](https://felgtbi.org/wp-content/uploads/2019/12/2010_w.jpg)
- Guasch, O., eta Mas Grau, J. (2014). La construcción médico-social de la transexualidad en España (1970-2014). *Gazeta de Antropología*, 2014, vol. 30, num. 3.

- García, N. R. M. (2019). Ciudadanía y movimiento LGTB en España.
- González, Á. S. (2008). Una aproximación a la teoría queer: el debate sobre la libertad y la ciudadanía. *Cuadernos del Ateneo*, (26), 29-42.
- 3/2007 LEGEA, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketa arautzen duena, EAO, 65. zk.a. (2007ko martxoaren 16a), 11251-11253 or.
- 13/2005 LEGEA, uztailaren 1ekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan Kode Zibila aldatzen duena, EAO, 157. zk.a. (2005eko uztailaren 2a), 23632-23634 or.
- 16/1970 LEGEA, abuztuaren 4koa, Arriskugarritasunari eta Birgaitze Sozialari buruzkoa, EAO, 187. zk.a. (1970eko abuztuaren 6an), 12551-12557 or.
- 20Minutos (2019). 'Aída' echa el cierre con liderazgo, récord de temporada y 4,2 millones de seguidores. *20Minutos*.  
<https://www.20minutos.es/noticia/2161777/0/aida-despedida-record-remporada/audiencia/final/>
- Huertas, R., eta Novella, E. (2013). Sexo y modernidad en la España de la Segunda República. Los discursos de la ciencia. *Arbor*, 189(764), a090-a090.
- 4/2023 LEGEA, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena, EAO, 51. zk.a. (2023ko martxoaren 1a), 30452-30514 or.
- Llamas, M. S., Gelado, R. G., de la Calle, N. G., eta Pérez, A. D. T. (2021). Evolución de los intereses y hábitos de consumo televisivo de la audiencia española. *Océanide*, 14, 17-24.
- Martín, P. (2022). Ley trans| Verdades y mentiras sobre la ley trans: claves para no perderse en la polémica norma.
- Martínez, L. (2018). Disidencias sexuales y corporales: Articulaciones, rupturas y mutaciones. *Psicoperspectivas*, 17(1), 40-51.
- Martínez, R. (2017). *Lo nuestro sí que es mundial. Una introducción a la historia del movimiento LGTB en España*, Egales, Madrid.
- Martínez, V. A. (2006). La nueva orientación del mercado del entretenimiento en el tránsito de la sociedad moderna a la posmoderna. In *La ética y el derecho en la producción y el consumo del entretenimiento* (pp. 83-92). Fundación COSO de la Comunidad Valenciana para el Desarrollo de la Comunicación y la Sociedad.

- Mira, A. (1999). *Para entendernos: diccionario de cultura homosexual, gay y lesbica*. Ediciones de la Tempestad.
- Méndez, R. P. (2009). Transexualidad y agenda política: una historia de (dis) continuidades y patologización. *Política y sociedad*, 46(1), 107-128.
- Montoya, F. M. R. R. (2013). El tribunal Europeo de derechos humanos y los derechos del colectivo LGBT. *Revista do Instituto Brasileiro de Direitos Humanos*, (13), 127-152.
- Monzón, C. (2001). Opinión e imagen pública, una sociedad" Bajo control". *Palabra clave*, (4), 9-25.
- Moreno Sainz-Ezquerria, Y. (2017). Judith Butler y la construcción del sujeto en términos performativos. *Thémata. Revista de filosofía*, 56, 307-315.
- Moreno, J. L. (2003-2006). *Aquí no hay quien viva*. Miramón Mendi S.L.
- Moreno, J. L. (2007-2008), eta, Caballero, A. (2009-gaur arte). *La que se avecina*. Alba Adriática; Contubernio Films; Prime Video.
- Orús, A. (2023). Evolución del porcentaje de individuos que vio la televisión en España de 1997 a 2022. *Statista*. <https://es.statista.com/estadisticas/475958/penetracion-de-television-en-espana/>
- Pérez-Sánchez, G. (2004). El franquismo, ¿Un régimen homosexual?". *Orientaciones*, 7, 29-48.
- Plataformas OTT en España* (2023). Barómetro TV-OTT: televisión de pago y OTT's | 3a Ola 2022 - Barlovento Comunicación. *Barlovento Comunicación*. <https://barloventocomunicacion.es>
- Redondo, D. (2022). 'La que se avecina' rompe el audímetro. *Cadena SER*. [https://cadenaser.com/ser/2016/04/06/television/1459932267\\_334744.html](https://cadenaser.com/ser/2016/04/06/television/1459932267_334744.html)
- Rendón Rojas, M. Á. (2001). Un análisis del concepto sociedad de la información desde el enfoque histórico. *Información, cultura y sociedad*, (4), 9-22.
- Rodríguez, I. Á. (2022). Dudas y certezas sobre el Proyecto de Ley Trans.
- Sabbah, F. (1985). The new media. *High Technology, Space and Society*, 210-24.
- Soares, D. V. (2021). Discriminación homoafectiva en España: un levantamiento histórico de sensibilización e inspiración. *Bagoas-Estudios gays: géneros e sexualidades*, 14(22).
- Suess, A. (2015). *"Transitar por los géneros es un derecho": Recorridos por la perspectiva de despatologización* (Tesis de posgrado). Universidad de Granada, Granada.
- Villena Espinosa, R. (2020). 50 años de orgullo. Un repaso escrito y visual por la historia del movimiento LGTBIQ+ en España.

Webster, F. (1995). *Theories of the information society*. Londres: Routledge.